

Donostia'n Eusko-Ikaskuntza'ren gela nagusian, 1928'an Urriaren 25'an.

Emen aipatzen diran euskaltzain jaun abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, ta Etxegarai. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaraldia.

I. — Jabon-salari dagozkionetan : Aita Intza-k Olaguen egitera dijoazen euskal-egunaren berri eman digu : Iruña-ko Seminarioan, euskerazko ikastaroa nola dabilen, adierazi digu : Pilosofiako lenbiziko urtekoak, egunero izaten dute: latiñeko laugarangoak bi egunetik bein : bertako irakasle jaun Intxauroñdo-k oraintsu argitaratu du : «Modo práctico de aprender el euskera».

Azkue-k esan digu : Bilbo'ko *Instituto*'n bi gela eskeintzen dizkigutela, gure lantegiak antxe jartzeko. *Sala de estudios* deitzen dan gela-nagusian, gure etxeko alki-mai ta orma-irudiak jari genezazkike, ta bertan batzaraldiak egin. Azkuek gure iritxia eskatzen digu. Euskaltzaindiak dasayo eskeñi ori jaso bear dala, bañan gure batzaraldiak, iñoren eragozpenik gabe egitekotan.

Azkuek berak esan digu, joan dan urtearoan, gure batzaraldiak bi ilbetetik bein izan dirala; bañan auferantzean ilero izan bear lutekela. Baietz erantzun du Euskaltzaindiak.

II.—Jose Migel Barandiaran jauna, beronek egin dituen euskal-folklore lanagatik urgazle izendatu degu.

III.—Azkuek erabili ditu autuan : *Diccionario-Gramatika* ta *Diccionario de la rima*; abetzaz ugari ta artez itz egiñik.

IV.—Azkue jaunak bere lana irakurri digu : *Estudio*

de la Sincopación. Aztertu ditu : bizkaitarren *conjunción bere* : *lez, legez-en* ordez dabilena ta *ba bada-*ren ordezkoa. Urkijok esan diyo : ongi daude lan abek, bañan Euskaltzaindiak oraintxe jardun bear lukela Iztegiari dagokiyon lan arduratsuan. Auxe erabaki da ta bertatik asi gera *neologismoen* sala aztertzen.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitz egin ta batzaraldia amaitu da.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian 1928'ko Urilaren 26'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran euskaltzain jaun berak datoz. Otoitz egin da.

I.—Lakonbe jaunak esan digu : *Catecismo* zar bat idoro duela ta berau ongi aztertu duela. Euskalkatekisma onen lenbiziko ageraldiko ale bakaña *Pau-*en dago. Bigarengo aldiz Akiz-en azaldu zan ta onen bakaña ere Burdigalen dago. Gogoz entzun dizkiogu beñi abek.

II.—Aita Intzak Napañoan arkitu dituen esaera zar batzuek irakuñi dizkigu.

III.—Altube jaunak, Gaubeka irar'earen eskutitz bat irakuñi digu : Gaubekak nai luke 1^o Liburutegi euskaldun bat iratsi, lengo edo oraingo liburuak irar-turik, ta 2^o onen iritxipena Euskaltzaindiari eskatu. Lan ontarako Euskaltzaindiak eman bear lioke soros-pen bat. Erantzun bear zaio : Eusko-Ikaskuntzak, berak aipatu duen asmoa, aspalditxo darabilkiela ta ari zuzendu bear diola bere asmo auxe.

IV.—Aita Iraizoz-ek biali dizkigu Iztegirako itz beñi batzuek. Jaso ditugu.